



Internet Eguna: familia osoak elkarrekin nabigatzeko beste aukera bat

Maiatzaren 17an Internet Eguna ospatuko da. Internet Egunak agerian utzi nahi du Internet zein garrantzitsua den gure gizartearen bizitza-maila hobetzeko eta ebaki digitala gutxitzeko. Maiatzaren 14a eta 17a bitartean egingo den ekimen hau Internet & Euskadi Elkarteak, SPRIK, KZguneak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eibarko Udalak eta Euskaltelek sustatu dute Euskadin. Aurten seigarren edizioa antolatu da eta Interneten erabilerraztasuna eta erabilera ona dira edizio honen ardatzak. Era guztietako jarduerak egingo dira —informatzaileak, jolasak, merkataritza arlokoak eta abar—, Internet eta Teknologia Berriak erabiltzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboak eta oso urruti daudenak gerturatzeko asmoz.

Gaur egun, lehenago ez bezala, informazioa eta teknologiak era adimentsuan eskuratu ahal izateak pertsona guztientzako aukera-berdintasuna ekarri du. Era askotako onurak ekarri ditu horrek: sormena sustatzen du, komunikazio-gaitasunak garatzen ditu, informazioaren esparruko baliabide mordoa eskuratzea ahalbideratzen du eta beti zabalik egon ohi den prestakuntza eta kontsulta-ingurunea eskura jartzeaz gain, adin txikikoek prozesu sozialetan parte har dezaten errazten du.

Horregatik du hainbeste garrantzi egungo neska-mutilek modu seguruan nabigatzen ikastea, informazioa eskuratzeko, elkarrekin komunikatzeko nahiz jostatzeko. Gure aldetik, lagundu egin behar diegu gure seme-alabei —haiek natibo digitalak dira— bitarteko hau ezagutzen, nahiz eta gu arlo analogikoko gurasoan izan. Hala ez badugu egiten, umezurtz digitalak izango direlako, bolada batez behintzat.

Ez dugu zertan adituak izan, seme-alabei lagundu ahal izateko Interneten nabigatzen. Nahikoa da nabigatzen saiatzea, besterik gabe. Eta guk baino gehiago badakite, eskatu ahal diegu guri erakusteko.

Gainera, Internet erabiltzen ikasteko tokiak daude: udal zentroak, gizarte etxeak, KZguneak eta beste zenbait elkarte, doan edo oso merke erakusten dutenak. Beste aukera bat da seme-alaben ikastetxeko guraso-elkartearekin harremanetan jartzea eta helduentzako ikastaroak antolatzea.

Garrantzitsuena da beti izatea gogoan onura horiek, baina bai eta arriskuak ere. Labur esanda, honakoak dira arriskuak: nahi ez diren edukiak eta kontaktuak, *ciberbullyinga* edo sareko jazarpena, pribatutasuna galtzea eta norberaren izen ona kaltetzea, birusak eta bestelako alderdi teknikoak, merkataritzako iruzurrak eta adizioa.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak zenbait jarraibide eta teknika proposatzen ditu pertsonak animatu daitezen etxean elkarrekin nabigatzera era seguruan.

1. Ezagutu Internet eta elkarrekin nabigatu: lor ezazu etxean Internet denon artean erabiltzea eta jostagarria izatea.
2. Hitz egin seme-alabekin Interneti buruz, zer egiten duten Interneten, norekin hitz egiten duten eta zein web-orri ikusten dituzten.
3. Ipini ordenagailua etxean denon eskura egongo den toki batean eta erabiltzeko arau batzuk finkatu.
4. Eduki baztergarriak ez ikusteko iragazkiak jarri, baina EZ ibili seme-alabak zelatatzen.
5. Eskatu seme-alabei haien ziberlagunak aurkezteko, eta esaeizu gerta daitekeela lineako lagunen batek benetan nor den ez esatea eta egia ez esatea.



6. Konfigura ezazu seme-alaben profila sare sozialetan eta bakar-bakarrik ezagutzen dituzuen pertsonak sartu lagunen zerrendan. 14 urtetik beherakoek gurasoen baimena behar dute sare sozial batean erregistratzeko.
7. Goitizenak edo *nikcak* erabili nortasun digitalak sortzeko; horrela, zure *nikca* zein den dakiten pertsonak baino ez dute jakingo nor zaren.
8. Ez eman Interneten zu topatzea ahalbideratzeko moduko datu pertsonalik: izena, helbidea, telefono zenbakia, ikastetxea, lantokia eta abar.
9. Birusen aurkakoak, suebakiak eta mezu baztergarriak iragazten dituzten programak instalatu ordenagailuan eta aldizka eguneratu.
10. Nahi ez dituzun mezu elektronikoak ireki gabe ezabatu, eta gogoan izan mezu bera pertsona askori bidaltzean ezkutuko kopia erabili behar duzula (Bcc).

Nabigatu era seguruan Interneten eta babestu zeure bizitza pribatua: gogoratu eskubidea duzula beste batzuek zuri buruz dituzten datuak eskuratzeko, datu horiei aurka egiteko, zuzentzeko eta ezerezteko. Informa zaituz hemen: www.avpd.es eta www.kontuzdatos.info

Goza ezazu Interneten familiarekin batera nabigatuz!

2010ko maiatzaren 17a